



**Irudia: Baraka**

Gaur goizean Gurutzeta eskolako guraso eta ikasleek kontzentrazioa egin dute, klaseak hasi baino lehen, eskolako aterpearen lanak atzerapenarekin daudela salatzen. Lanak ikasturtearen hasieran bukatuta egon behar ziren, baina atzerapenarekin daude eta orain gainera, modu mugagabean gelditu dira: aterpearen egiturak ez duelako segurtasun neurriak betetzen. Honek eragin zuzena dauka ikasleetan: oso leku gutxi daukate jolasteko, txandaka atera behar dira patioa, eskola kanpoko ekimenak ezin dira egin... Gurasoek azpimarratu dute, egoera hau udalak egin duen kudeaketa eta antolakuntza txarraren ondorioa dela.